

Kontratazio berriak % 10 baino gehiago hazi dira 2020ko azarotik

Kutxabankeko kontsumo-maileguen zorroa 1.000 milioi euro baino gehiagokoa da

- Maileguen kontratazioaren ia % 50 bulegoen ordezeko kanalen bidez egin da
- Berankortasun-indizea kontrolatuta mantentzen da neurrizko % 1,45ean

2021eko abenduaren 9an. Kutxabank taldeak **1.000 milioi euroak** gainditu ditu azaroan kontsumo-maileguetan. Hazkunde nabarmen hori kreditua arduraz emateko ohiko jarrerarekin egin da, eta, horren ondorioz, berankortasun-indizea tasa oso kontrolatuan, % 1,45ean, mantendu da.

Formalizazio berriak % **10,3** gehitu dira iazko azarotik, eta Saltegi Kredituaren kontratazioa bereziki hazi da, % **31,5** alegia. 2021eko urrian Kutxabankeko milioi eta erdi bezerok, aurrez onartutako efektibo gisa, guztira 34.000 milioi eurotik gorako dirutza zuten erabilgarri.

Mailegu horien kontratazioaren % **50** inguru **bulegoen ordezeko kanalen bidez** egin da, hala nola Online Bankaren eta Banka Mugikorraren bidez. Smartphoneak gainerako kanal digitalei aldea ateratzen jarraitzen du, eta dagoeneko urrutiko kanal horren bidez formalizatzen dira kontratu gehien.

Kutxabankek kontsumorako maileguen katalogo zabala du, pertsona bakoitzaren beharretara egokitzen dena. Duela gutxi, **Gabonetako Efektibo Mailegu**-kanpaina berri bat jarri du abian, Gabon-jaietan sortzen diren aparteko gastuak errazago finantzatzeko. Kanpaina harreman bereziko bezeroei zuzenduta dago aurrez onartutako maileguekin, eta 2022ko urtarrilaren 15era arte egongo da indarrean.

Horrela, modu arin eta errazean, bezeroek berehala eta inolako dokumentaziorik aurkeztu beharrik gabe, irekiera-komisiorik gabeko kreditua eskuratu ahal izango dute, 84 hilabetera arteko itzulketa-epearekin. Finantza-produktu hau aplikazioaren bidez, Online Bankaren bidez, bulego-sarean eta kutxazain automatikoetan kontratatu ahal izango da.